



## **Arautegia**

### **Krosa 2017**

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, **Euskadiko XXXVI. Eskolarteko Kirol Jokoak** antolatuko ditu 2017ko martxoaren 12an Araian (Araba).

**I. Artikulua.-** Txapelketa honetan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioan dauden infantil mailako kirolariek hartu dezakete parte (2003 eta 2004an jaioetakoak), hala nola, eskola kiroleko taldeak eta eskola kiroleko kanpainetan inskribatuta dauden elkarteak (3 talde lurralde historiko bakoitzeko, gizonezkoen kategorian nahiz emakumezkoetan).

**II. Artikulua.-** Lurralde-selekzioko talde bakoitzak, gehienez 6 kirolari aurkeztu ahal izango ditu. Bai gizonezkoetan, baita emakumezkoetan ere.

**III. Artikulua.-** Ikastetxe edo elkarte bakoitzeko taldeek, gutxienez 4 eta 6 kirolari aurkeztu beharko ditu, bai gizonezkoen kategorian bai emakumezkoetan ere.

**IV. Artikulua.-** Ikastetxe bakoitzeko taldeek hurrengo araudia bete beharko dute:

- Taldea 6 kirolariz osatuta badago, gutxienez lauk ordezkatzeko duten ikastetxeakoak izan beharko dute.
- Taldea 5 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzeko duten ikastetxeakoak izango dira.
- Taldea 4 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzeko duten ikastetxeakoak izan beharko dute.

**V. Artikulua.-** Klubak derrigorrez, bertakoak diren kirolariz osatuta egon behar dira eta beraien lurralde historikoko eskola kiroleko programetan izena emanda egon behar dira.

**VI. Artikulua.-** Taldeen sailkapena, edozein kategoriatan, lasterketa bakoitzetik eta talde bakoitzetik lehenengo lau kirolariak oinarritzat hartuta egingo da, talde bakoitzeko puntuazioa 4 kirolarien sailkapenen batura eginez. Bi talde edo gehiagoren artean berdinketa izan ezker, laugarren kirolariaren sailkapena kontuan hartuko da.



**VII. Artikulua.-** Hurrengo lasterketak ospatuko dira, aurreikusitako gutxi gorabeherako luzera eta ordutegiaz.

| Kategoria        | Distantzia | Ordua |
|------------------|------------|-------|
| Infantil mutilak | 4.000 m    | 11.00 |
| Infantil neskak  | 3.000 m    | 11.20 |
| Sari banaketa    |            | 12,30 |

**VIII. Artikulua.-** Euskadiko Infantil Mailako Eskolarteko Kross Txapelketarako izen-emateak lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira 2017ko martxoaren 3an, arratsaldeko 20:00ak baino lehen. Hauek Euskadiko Atletismo Federazioara helarazi, martxoaren 7a arratsaldeko 14,00ak baino lehen.

**OHARRA:** Dorsalak frogatzen egunean bertan, martxoak 12an, emango zaizkio zirkuituko idazkaritza nagusian talde edo selekzio arduradunari.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2017ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren deialdia egiteko dena
- Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2017ko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- IAFFak duen nazioarteko txapelketen araudia.